

2024/10/24ean EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA
CORPORACIÓN. Día 24/10/2024.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Edorta Barandiaran García
Xabier Uriarte Iñurrategi
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Antonio Regaño Sajeras
Josu Ezkurdia Santamaria
Maite Uribe Beristain
Puri Regidor Varela

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2024ko urriaren 24an, arratsaldeko 18:00etan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaietara buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 24 de octubre de 2024, en el quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2024/09/26an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2024ko urriaren 16ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berriaz eman da 21. eta 22. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

3.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 3/2024 ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2023ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea erabaki zuen.

Ingurumen arloak ikusi du komenigarria dela 2024-eranskinean jasotako aurreikuspenak aldatzea eta 9. lerro estrategikoan (INGURUMENA), Gizabidea Fundazioarentzako laguntza-programa berri bat sartzea.

Proposamena ikusita eta Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 9. lerro estrategikoan (INGURUMENA) dirulaguntza programa hau sartzea:

HARTZAILEAK: GIZABIDEA FUNDAZIOA

- HELBURUA: Gizabidea Fundazioari dirulaguntza ematea, Debagoiena eskualdeko trantsizio energetikoari buruzko deliberazio-prozesu bat burutzeko.
- LORTU GURA DENA:
 1. Energiaren arloan helburu komunak ezartzea adostasun zabalen bidez.
 2. Debagoiena eskualdeko herritarrak eta eragileak ahalduntzea, energiaren gaian dituzten erantzukizunak onartuta.
- DIRULAGUNTZA MOTA: izenduna, hitzarmen erregimenean.
- KOSTUEN AURREIKUSPENA: 5.646,30 €
- FINANTZIAZIOA: 0100.481.924.00.01 2024, diru-izendapena handitzeko kredituak aldatu ondoren.

4.- ERAIKIN PUBLIKOAK GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA: ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIORAKO DEIALDIA EGITEA.

Lurralde eta Garapen Ekonomikoko batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, horrekin bat etorriz, eta bertaraturako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren

arabera kontratatzeko espedientea onartzea. Kontratuari kalkulaturako balioa Europako atalasearen berdina edo handiagoa da, 300.465,14 euro urtekoa, balio erantsiaren zergari dagozkion 63.097,68 euro gehitu beharko zaizkionak. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 4 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

BIGARRENA.- Zerbitzu kontratu honen prozedura ireki bidezko kontratazioa arautu behar duten administrazio baldintza partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.

HIRUGARRENA.- Espedientea alde zuzenetik izapidetzeko baimena ematea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz. Esleipena eteteko baldintza izango da hurrengo ekitaldian kontratu honetatik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa ez egotea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura ireki bidez esleitzeko prozedura hasita, eta lizitazioarako dagokion iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAOn) argitaratzeko agintzea, ondoren kontratatzailearen profilean argitaratzeko, nahi duenak proposamenak aurkeztu ditzan 30 eguneko epe barruan iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidaltzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

5.- 2024ko EKAINAREN 27KO UDALBATZARRAREN ERABAKIZ EZARRITAKO ZEHAPENAREN AURKA SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO ENPRESAK JARRITAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOARI BURUZKO ERABAKIA.

Udalbatzarrak 2024ko ekainaren 27an hartutako erabakiaren aurka SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL merkataritza-sozietateak 2024ko abuztuaren 2an jarritako berraztertze errekurtsoa (sarrera-erregistroa: A/24-01975) aztertu da. Erabaki horren bidez, 6.275,48 euroko zigorra ezarri zen, Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko administrazio-kontratuaren lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren (BEZik gabe) ehuneko 3ari dagokiona.

Jarritako berraztertze errekurtsoren edukia irakurrita, ikusten da errekurtsogileak bere argudioak aintzat hartzeko eta Eskoriatzako Udalak honako hau egiteko eskatzen duela:
"ESKATZEN DUT, idazki hau aurkeztutzat emanda, onar dadila, eta, ondorioz, berraztertze errekurtsu hau baietsiz, 2024ko ekainaren 27ko erabakia (2024ko uztailaren 3an jakinarazia) balio gabetzea eta ondorioz gabe uztea".

Eskoriatzako Udalak EKAIN ABOKATUAK S.A. bulego-juridikoari txosten bat egiteko eskatu zion, Zuzenbidean oinarritua, behar bezala aztertze errekurtsogileak jarritako errekurtsuan jasotako argudio juridikoak. Txosten hori 2024ko irailaren 12an igorri zen, eta Udalbatzarraren erabaki honi erantsi zaio.

Aipaturako txosten juridikoak, Erabaki honi erantsita dagoenak, SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL enpresak berraztertze errekurtsuan emandako argudioak erabat ezestearen alde egiten du.

Azaldutako guztiagatik, Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako EH BILDUKO 7



zinegotziek alde bozkatuta, eta EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Ezestea SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL merkataritza-sozietateak 2024ko abuztuaren 2an jarritako berraztertze errekurtsoa, Udalbatzarrak 2024ko ekainaren 27an hartutako Erabakiaren aurkakoa. Erabaki horren bidez, 6.275,48 euroko zigorra ezarri zen, Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko administrazio-kontratuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren (BEZik gabe) ehuneko 3ari dagokiona.

Bigarrena.- Erabaki hau errekurtsogileari eta espedientean interesa duen beste edozeini jakinaraztea, eta adieraztea erabaki honek amaiera ematen diola administrazio-bideari eta beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango duela jurisdikzio horretako Donostiako epaitegietan. Errekurtsu hori jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAREN LEHENENGO LUZAPENA.

Udalbatzarrak, 2023ko abenduaren 13an egindako bilkuran, ESKORIATZAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO kontratua GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.A. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren esango diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe.

- Lanegunetako orduaren prezioa: 29,00 € (BEZa gabe), 30,16 € (BEZa barne)
- Jaiegunetako orduaren prezioa: 33,66 € (BEZa gabe), 35,00 € (BEZa barne).

Baldintza administratibo partikularren agiriaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek URTEBETEKO iraupena izango du 2024ko urtarrilaren 16tik kontatzen hasita, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BI URTE baino gehiago iraun. Luzapena urtebeterako izango da, eta berariaz erabaki beharko du kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikulua 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Udal zerbitzu teknikoek jakinarazi dute komeni dela kontratua beste urtebetez luzatzea.

Berlaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ESKORIATZAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA emateko GIZADI LAGUNTZA ZERBITZUAK S.A. enpresari esleitutako kontratua URTEBETEZ luzatzea.

7.- TORREBASOKO KOMUNEN MANTENTZE-LANETARAKO ESKORIATZAKO ETA ARETXABALETAKO UDALEN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA.

2024/10/24
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria

Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2019ko apirilaren 1ean formalizatutako lankidetzaz hitzarmena betetz TORREBASO PASEALEKUAN udal bien artean jarritako komun publikoen mantentze-lanetarako Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek sinatu beharreko hitzarmena ONARTZEA.

Bigarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkartze sinatu dezan.

8.- 2025. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO HASIERAKO ONARPENA.

Antolamendu eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta eta EAJ/PNVko 4 zinegotziek, aurka, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hasiera batean onartzea 2025erako ordenantza fiskalen aldaketa I eranskinean jasotako moduan.

Bigarrena.- Hartutako erabakiak jendaurrean jartzea 30 egun baliodunetz, nahi duenak erreklamazioak edo oharrik egin ditzan.

Hirugarrena.- Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

ESANDAKOAK:

- Josu Ezkurdia: guk, batzordean esan genuen bezala, aurka bozkatuko dugu, eta batzordean baino gehiago luzatuko naiz arrazoiak emateko. Alde batetik, gu, udal gobernuan egon garen urteetan, tasak eta zergak mantentzen ahalegindu gara, uste dugulako herritar askok horiek ordaintzeko arazoak dituztela. Horregatik, KPlaren araberrako igoerak aplikatzea erabaki dugu beti. Oraingo honetan, EH BILDUren gobernuak % 39 handituko du hondakinen bilketa tasa. Batzordean gaizki ulertu ez banuen, eman zen arrazoiak izan zen hala eskatzen duela trantsizio energetikoaren legeak. Guk uste dugu ez dela horrela, lege berri honek bi gauza esaten ditu: alde batetik, zerbitzuak ez duela defizitarioa izan behar, eta, bestetik, gehien kutsatzen duenak ordaindu behar duela gehien. EH BILDUren planteamenduetarekin hori ez da betetzen. Egia da igoerarekin zerbitzuak defizitarioa izateari utz diezaiokela, baina guretzat hori biderik errazena da. Eta zergatik diot hau? Izan ere, zerbitzu bat defizitarioa izan ez dadin, bi aukera egon daitezke: diru-sarrerak igo daitezke, baina gastuak ere jaits daitezke. Eta, alde horretatik, uste dugu asko dagoela egiteko alor horretan. Dakizueenez, bilketa zerbitzua Mankomunitatearen bidez egiten da, udalerrri batzuetan oraindik ere zerbitzua "atez ate" egiten da eta zerbitzu horrek gainkostu handia du. Eta hori denon artean ordaintzen dugu. Sistema hori erabiliko ez balitz, zerbitzuaren kostua, gure kalkuluen arabera, % 6 eta % 8 murriztuko litzateke gu guztiontzat. Gero, bigarren zatia dagokionez, hau da, tratamenduari, egia da kostua proportzionala dela sortzen den kantitatearekin. Sortzen diren hondakinen kopurua murrizteko neurriak edo programak onartuko balira, tonak murriztu egingo lirateke eta gutxiago ordaindu beharko litzateke. Datuak ikusten baditugu, guk ditugun datuen arabera behintzat,

azken urtean Eskoriatzan birziklapena % 7 murriztu da gutxi gorabehera, eta horrek esan nahi du % 7 handitu dela errefusaren edukiontzira doana. Eta hori kostu zuzena da gure sistemarentzat. Eta hala eta guztiz ere, ez dugu ikusten Eskoriatzako gobernuak, EH BILDUK kudeatzen duen gobernuak, hondakinen ekoizpena murrizteko neurririk hartu duenik. Hori ere faltan botatzen dugu. Esan dut Legeak bi eremu jasotzen dituela, eta bigarrenak dio "hondakin gehien sortzen duenak gehien ordaindu beharko lukeela". EH BILDUren planteamenduaren arabera, igoera berdina da guztiontzat; hau da, etxe bakar batean bizi denak eta bost kideko familiak gauza bera ordainduko dute. Guri hori ez zaigu zuzena iruditzen, etxebizitza bakoitzean bizi direnen kopuruaren arabera izan beharko litzatekeela uste dugu. Adibidez, Gasteizen, EAJren, PSOEn eta EHBILDUren botoekin irizpide horretan oinarritutako tasa bat ezarri da, ez etxean bizi direnen kopuruaren arabera, baizik eta azaleraren arabera, azalera gehien duten etxeetan jende gehiago bizi dela ulertuta. Guretzat hori ez da egokiena, baina tira... Horrela erabaki dute, eta horrela saiatu dira legea betetzen. Guk ikusten dugu Eskoriatzan ez dela horrela egin eta horregatik kontra bozkatuko dugu.

- Alkatea: proposatzen dituzun kontu guztiak, ordenantza proposamena jaso ondoren, batzordean planteatu behar zenituela uste dut, eta ez Osoko Bilkuran.
- Xabier Uriarte: lehenik eta behin, ez zait argi geratu zer proposatzen duzuen Eskoriatzako birziklapenaren ehuneko handitzeko, zalantza dut zer proposatzen duzuen. Bigarrenik, planteatu dituzun gai batzuk interesgarriak izan daitezke, baina Edortak esan duen bezala, batzordean planteatu behar zenituzten. Eta kontuan hartuta Eskoriatza dela eskualdean gutxien birziklatzen duen udalerrria, gustura hartuko genituzke ehuneko hori handitzeko dituzuen ideiak.
- Josu Ezkurdia: beno, beste udalerrri batzuk aipatu dituzu, eta guri inporta zaiguna Eskoriatza da, horregatik gaude hemen. Guk uste dugu udal talde gisa proposamenak nahi dugunean eta nahi ditugun lekuetan egiten ditugula. Alde horretatik, ondo dago esan duzuna, baina guk erabakiko dugu gauzak non proposatu, batzordeetan edo osoko bilkuretan. Uste dut eskubide osoa dugula foro guztietan egiteko proposamenak. Gero, ideiei dagokienez, ideiak baditugu, baina argi daukagu udal gobernuaren ardura zuena dela, eta zuek zaretela proposamenak egin behar dituzuenak. Ideiak badauzkagu, eta deitzen badiguzue, prest gaude hitz egiteko.
- Xabier Uriarte: beno, bukatzeko. Esan duzun bezala, legeak zerbitzua defizitarioa ez izatea eskatzen du, eta, ondo esan duzun bezala, alternatiba bat izan daiteke herritarrei ordainarazten zaien gastua murriztea eta birziklatzea areagotzea. Horren aurrean, helburu hori lortzeko zuen ideiak edo planteamendua ezagutzeko bilera batera deitzeko konpromisoa hartzen dut, eta proposamen guztiak ondo etorriko dira.
- Josu Ezkurdiak erantzun dio ideiak partekatzeko prest dagoela, baina argi utzi nahi duela bai zerbitzuaren kudeaketaren bai kudeaketa horren emaitza ona izatearen erantzukizuna EH BILDUren dela soilik.
- Dorleta Sologastioa: lau urtez egon naiz entzuten proposamenak batzordeetara eraman behar direla, eta orain pena ematen dit entzuteak zuek batzordera edo erabakitzen duzuen lekura eramango dituzuela. Eta hori diot lau urtez gauza bera entzuten egon naizelako, eta, orain, esan duzuna entzutea oso itsusia da.
- Josu Ezkurdia: uste dut esan dudana dela bidezkoa eta ez itsusia; eta guk eskubide osoa dugula gauzak nahi ditugun foro eta lekuetan planteatzeko.
- Dorleta Sologastioa: baina ez lehen esaten zenuena ez betetzeko.

9.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILTZAK JARRITAKO ERAGOZPENAK 2024KO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN.

2024/10/24
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2024ko uztailaren 1etik 2024ko irailaren 30era arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

7/2024 ERREPAROA: KULTURA ARLOARI EMANDAKO KUTXAKO 7/2024 ZENBAKIKO AURRERAKINA (500 eurotik 460 euro ez dira behar bezala justifikatu fakturekin).

1385/2024 ALKATE ERABAKIZ TMIZ-EN AITORTUTAKO SALBUESPENARI JARRITAKO ERAGOZPENA.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

10.- ARETXABAETA ETA ESKORIATZAKO BAKE EPAITEGIETAKO IDAZKARITZEN ELKARTEAN SARTZEKO LEINTZ GATZAGAK EGINDAKO ESKAERA.

Bake Justiziarri buruzko abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuak V. kapituluaren arautzen ditu bake epaitegietakoko idazkaritzen elkarteak.

20. artikulua ezartzen du kapitulu horretako aurreko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko dela bake-epaitegiko idazkaritza bat dagoeneko eratuta dagoen elkarte batean sartzen bada.

Hala, aipatutako 20. artikulua elkarteak eratzeko baldintzak ezartzen dituen 18. artikulura bidaltzen gaitu.

"...

Idazkaritza-elkarte bat eratzeko baldintzak honako hauek dira:

a) Elkartu nahi diren bake-epaitegiak barruti judizial berekoak izan beharko dira.

b) Epaitegi horien egoitzen arteko komunikabideak egokiak izan beharko dira batu diren idazkaritzak bake-epaitegi guztien eginkizunei behar bezala erantzuteko.

...".

Kasu honetan, Aretxabaeta eta Eskoriatzako Bake Epaitegien Idazkaritzen Elkartearen sartuko balitz Leintz Gatzaga, goian adierazitako baldintzak beteko lirateke:

a) Batu nahi diren bake-epaitegi guztiak Bergarako barruti judizialekoak dira.

b) Epaitegi horien egoitzen arteko komunikazioak egokiak dira elkartearen osatzen duten idazkaritzetako bake-epaitegi guztien eginkizunei behar bezala erantzun ahal izateko, honako hauek kontuan hartuta:

- Bake epaitegi guztien arteko komunikazioa bermatzeko, elkartearen egoitza nagusia Aretxabaletan egongo da.

- Aretxabaletatik gainerako udalerritarako distantzia 9 km-tik beherakoak da, eta udalerririko guztiak errepidez eta autobusez komunikatuta daude, udalerririko eskatzaileak (Leintz Gatzaga) egindako memorian jasotzen den bezala.

Halaber, abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 19. artikulua aukera ematen du bake-epaitegi-tako idazkaritzen elkarteak sortzeko prozedurari hasiera emateko ofizioz edo elkarte osatu nahi duten udalek eskatuta. Kasu honetan, Aretxabaletako eta Eskoriatzako Bake Epaitegien Idazkaritzen Elkartean sartzeko prozedura elkartean sartzea nahi duen udalak eskatuta hasten da, eta, beraz, aipatutako arauaren 20. artikuluan ezarritako izapideari jarraitu beharko zaio.

Artikulu horren arabera, "elkarte eratzeko eskaera justizia-arloan eskumena duen saileko Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza eskudunari zuzenduko zaio" eta "eskabidearekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

1.- Elkarte osatzea nahi duten udaletako kasuan kasuko organoek emandako ziurtagiriak, elkarte eratzeko espedientea hasi dela eta hurrengo puntuan aipatzen den txostenaren edukia onartu dela egiaztatzen dutenak.

2.- Elkartearen eraketari buruzko txostena".

Alde batetik, egiaztagiriei dagokienez, eskaerarekin batera elkarte osatzea nahi duten udaletako osoko bilkurek elkarte eratzeko espedientea hasteko eta elkartean sartzeari buruzko txostenaren edukia onartzeko hartutako erabakien ziurtagiriak aurkeztuko dira. Bestalde, elkartean sartzeari buruzko memoria-txostenari dagokionez, abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 20.2 artikuluan eskatzen diren alderdi guztiak jasotzen dira txosten horretan, eta, era berean, justifikatuta geratzen da elkartean sartzea eskatzen duen udalak ezin duela Bake Epaitegia eta Erregistro Zibila kudeatu legeak ezartzen duen moduan, ezta modu duinean ere, dituen baliabide pertsonal eta materialekin behintzat. Hala, aipatutako memorian honako puntu hauek jorratzen dira:

a) Zein bake-epaitegi hartzen dituen.

b) Elkartearen egoitza.

c) Elkarte osatu nahi duten bake-epaitegiek jasaten duten lan-karga, amaitutako azken urte judizialari dagokionez behintzat.

d) Udalaren biztanle-datuak eta bake-epaitegien eginkizunak betetzeko erabilgarri dauden langileei eusteko baliabide ekonomikoak, proposatutako elkartearen egokitasuna justifikatzeko.

e) Barne-antolaketarako behin-behineko proposamena eta elkarte osatzen duten epaitegi-tako egunen, lanorduen eta jendaurreko ordutegiaren hasierako programazioa, eta baita hileroko egingo diren joan-etorrien aurreikuspena ere.

f) Epaitegien egoitzen eta elkartutako udal nagusien artean dauden komunikabideen egokitasunari buruzko aipamena.

Era berean, 411/1998 Dekretuaren 20.2 artikuluan xedatutakoaz gain, memorian eskabide gisako azken puntu bat jorratu da: "g) Euskara, egin nahi den elkarte osatzen duten udalen arteko elementu loteslea".

Argi dago, beraz, hurbiltasuna eta barruti judiziala alde batera utzita, euskara dela udalerririk horien guztien arteko sare naturala osatzen laguntzen duten funtsezko elementuetako bat.

Aurreko guztia oinarri hartuta, memorian azpimarratzen da oso garrantzitsua dela Bake Epaitegien Idazkaritzen Elkarteak euskarazko zerbitzu duin bat mantentzea eta ziurtatzea behin udal berria Elkartera sartutakoan. Eta, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikulua udalei esleitzen dizkien eskumenen arabera, eskatzen da Bake Epaitegien Idazkaritzen Elkarteari esleitzen zaizkion langileek hizkuntza-gaitasun egokia eta nahikoa izan dezatela euskaraz kalitatezko zerbitzu egokia emateko; horrela, herritarrei aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatu eta eraginkor egiteko, hau da, bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan, Administrazioarekin eta edozein erakunderekin ahoz edo idatziz komunikatzeko eskubidea bermatzeko eta gauzatzeko, besteak beste, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5. artikuluan eta Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 6. artikuluan aitortua.

Horregatik guztiagatik, proposatzen da Leintz Gatzaga Aretxabaleta eta Eskoriatzako Bake Epaitegien Idazkaritzaren Elkartearen sartzeko egindako memorian ezarritako baldintzetan.

Aurrez esandakoan oinarrituz, Antolaketa eta Ogasun batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, legeak eskatzen duen gehiengo absolutuaren quoruma osatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI du:

LEHENENGOA.- Leintz Gatzaga Aretxabaleta eta Eskoriatzako Bake Epaitegien Idazkaritzaren Elkartearen sartzeko espedienteari hasiera ematea onartzea.

BIGARRENA.- Leintz Gatzagak 2024/09/18an egindako txosten-memoriaren edukia onartzea eta espedienteari gehitzea, abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuaren 20.2 artikuluekin bat etorriz.

HIRUGARRENA.- Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari eskatzea Bake Epaitegien Idazkaritzen Elkarteari esleitzen zaizkion langileek euskaraz zerbitzua emateko hizkuntza-gaitasun egokia eta kalitatezkoa izan dezatela.

LAUGARRENA.- Erabakia Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari helaraztea, espediente ahalik eta lasterren izapidetzeko eskatuz.

11.- EUDELEK ESKATUTA ALKATEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA”.

Hitza eman ondoren, Irati Iglesiasek labur azaldu du onartzeko proposatzen den mozioa.

Ondoren, bozketa eginda, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak erabaki du jarraian hitzez hitz transkribatzen den mozioa onartzea.

AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Azaroaren 25a emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta Udalok gaitzespen irmoa adierazten dugu indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurrean, eta beste erakunde batzuekin, mugimendu feministarekin eta gizarte osoarekin modu koordinatuan lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu.

Aurten, arreta jarri nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria matxistaren diskurtso ukatzaileetan, ultraeskuinak aurrera egiteko Europako eta munduko testuinguru batek bultzatuta jaiotzen baitira. Emakumeen eskubideetan izandako aurrerapenen aurreko erreakzio horrek, emakumeen eta haien inguruaren aurkako indarkeria ezereztu egiten du, eta oraindik haratago doa, lege-aldaketen biktimak gizonak direlako ustea sustatuz, berdintasunari eta indarkeria matxistari dagokienez.

Nahiz eta gero eta sentsibilizazio eta kontzientzia kolektibo handiagoa egon emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartearen alde, – bai esparru legalean, eta politikoan, bai sozialean-, gaur egungo joera neomachista hasten ari da, batez ere mutil eta gizon gazteengan eta adin ertainekoetan eta eremu digitalean, bereziki. Manosfera deitu zaion eremuan, mezu misogino eta berdintasunaren aurkako mezu ugari daude. Ondorioz, "indarkeriak ez duela generorik", "asmakizun ideologikoa" dela eta berdintasun-politikak urrunegi iritsi direla bezalako mezuak jasotzen ari dira gazteak.

Diskurtso horien aurrean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren datuek gogorarazten digute gure gizarteak egiturazko arazo bat duela, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritzen dena. Negazionismoa arazo globala da, eta Nazio Batuek ere alarma piztu dute berdintasunaren aurkako-mehatxu gero eta handiagoez eta misoginiaren normalizazioaz ohartarazteko, batik bat, hedabide digitalean.

Hori guztia kontuan hartuta, Eskoriatzako Udalean emakumeen aurkako indarkeria ezereztu nahi duen edozein diskurtsoren aurka agertzen gara, eta honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Gure herrian, euste-horma kolektiboa aktibatzea, emakumeen aurkako indarkeria ukatzen edo/eta ezereztan duen edozein erreakzio matxistaren aurrean, tokiko eragile guztiekin lan eginez, mezu ukatzaileak indargabetzeko eta tokiko bizitzan barneratzeko eta halakoak sortuz: partaidetza-mahaiak, zurrumurrus misoginoak eta mezu ukatzaileei aurre egiteko tokiko sareak, komunikazio bateratuak, erantzun publiko eta kolektiboko protokoloak...
- Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-neurriak hartzea, batez ere mutilei zuzendutakoak, egunero jasotzen dituzten mezu misoginoak, emakumeen aurkako mezu bortitzak eta berdintasunaren aurkakoak desaktibatzeke, batik bat, bitarteko digitalen bidez.
- Gune formal eta informaletan, eskola-komunitateari zuzendutako hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuak indartzea, indarkeria matxistaren aurrean mezu eta jarrera ukatzaile horiei aurre egiteko eta desaktibatzeke.
- Hezkuntza Sailarekin hitz egiteko bideak erabiltzea, eskola-curriculumean jarrera ukatzaileetan eta jarrera matxisten normalizazioan esku-hartzea indartzeko.
- *Berdinsareatik*, eta beste sareetatik ere, udalerriek sarean ekiteko aukera indartzea, negazionismoari aktiboki aurre egiteko eta udalerriek indarkeria matxistaren aurka kolektiboki borrokatzeke egiten duten apustua berresteko.

Era berean, Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat herritan antolatuko diren ekitaldietan parte hartzera animatu nahi ditugu herritarrak, emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien aurrean gaitzespena modu aktiboan adierazteko, horien negazionismoa eta ezerezteke barne.

Aurreko gaia aztertu ondoren, eta GALDE-ESKEETARA jo baino lehen, **alkateak proposatu du urgentziarako tramitez sartzea kiroldegiko fitness eta kardio aretoen ekipamendua leasing bidez hornitzeko, ekipamendua jartzeko eta mantentze-lanak egiteko kontratua esleitzeko proposamena.**

Urgentzia justifikatzeko alegatu du, batzorde informatzailearen diktamena dagoela eta ez dela bidezkoa esleipena gehiago atzeratzea, ostiralean jaso baitzen OARCek hartutako erabakiaren jakinarazpena, zeinak ETENON FITNESS S.L.U.k jarritako errekurso berezia ezesten duen.

Aho batez erabaki da gaia gai zerrendan sartzea.

12.- ESKORIATZAKO MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIKO FITNESS ETA KARDIO ARETOEN EKIPAMENDUA LEASING BIDEZ HORNITU, JARRI ETA MANTENTZE-LANAK EGITEKO KONTRATUA ESLEITZEKO ERABAKIA.

Udalbatzarrak, 2024ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegiko fitness eta kardio aretoen ekipamendua leasing bidez hornitzeko, ekipamendua jartzeko eta mantentze-lanak egiteko kontratazio espedientea onartzeko erabakia hartu zuen. Kontratazioa prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera egingo da. Kontratuaren balioa, berriz, 125.000,10 eurokoa da, balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion 26.250,021 euro gehitu beharko zaizkionak, eta 59 hilabeteko iraupena izango du.

Eskaintzak aurkezteko ezarritako epean ondorengo enpresek aurkeztu zituzten beraienak:

1. ETENON FITNESS SL
2. CAIXABANK EQUIPMENT FINANCE SA
3. JOHNSON HEALT TECHNOLOGIES IBERICA SL
4. EXERCYCLE SL
5. ARGYSAN SL
6. BAI INSTALACIONES DEPORTIVAS SL

Hurrengo enpresak prozesutik kanpo geratu ziren, egiaztatu baitzen formula matematikoen bidez ebalua daitezkeen irizpide gisa HIRU artxibo elektronikotan sartu beharrekoak (4.- *Prebentziozko mantentze-lanak* puntuan eskatzen den informazioa) balio-judizioen bidez ebalua daitezkeen irizpide kualitatiboen C puntuari dagokion atalean (BI artxibo elektronikoa) sartu zituztela. Zehazki, prebentziozko mantentze-lanetarako urtean egingo dituzten bisitei buruzko informazioa sartu zuten.

1. ETENON FITNESS SL
2. CAIXABANK EQUIPMENT FINANCE SA

Aztertutako gainerako lau eskaintzetatik hurrengo lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak EZ ZIREN EGOKITZAT JO ETA KANPO GERATU ZIREN, ez baitzuten % 50eko puntuazioa gainditzen (24,5 puntu), kontratazioa arautzen duen baldintza agirian eskatzen den bezala:

1. JOHNSON HEALT TECHNOLOGIES IBERICA SL
2. EXERCYCLE SL
3. BAI INSTALACIONES DEPORTIVAS SL

Baztertu gabeko enpresa bakarraren eskaintzaren balorazioaren emaitza honako hau izan zen:

ARGYSAN SL

IRIZPIDEA	PUNTUAK
Espazioen banaketa	23,25
Kardio aretoa	4
Mantentze-lanak	3,75
Hobekuntzak	2,5
Eskaintza ekonomikoa	28 (alokairuaren hileko prezioa 1.455,75 €)
Matxurei erantzuteko denbora	15 (23 ordu)
Mantentze-lan prebentiboa	8 (4 bisita)
Guztira	

Kontratazio Mahaiak 2024ko apirilaren 25ean egin zuen esleipen-proposamena.

ARGYSAN SLk eskatu zitzaion dokumentazioa eta fidantza aurkeztu ondoren, Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak, 2024/05/15ean egindako bilkuran, esleipen-proposamenari buruzko irizpena eman zuen.

ETENON FITNESS SLUK lizitazio prozesutik kanpo gelditzearen aurkako errekurtsio berezia aurkeztu zuen 2024ko maiatzaren 22an, eta errekurtsio hori ezetsi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak 2024/10/18an.

Aurrez esandakoan oinarrituz, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ARGYSAN S.L. enpresari esleitzea “Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegiko fitness eta kardio aretoen ekipamendua leasing bidez hornitu, jarri eta mantentze-lanak egiteko” kontratua, administrazio baldintza partikularren agirian eta baldintza teknikoaren agirian ezarritako baldintzei eta kontratistaren ondorengo zehaztapenei eta proposamenean jasotako gainerakoei lotuta:

- Ekipamenduaren alokairuaren hileroko prezioa: 1.455,75 € (BEZik gabe).
- Hondar-balioa: 5.000 € (BEZik gabe).
- Matxura egonez gero erantzuteko denbora: 23 ordu.
- Mantentze-lan prebentiboa: 4 bisita urtean

Hirugarrena.- Kontratazio honen esleipena eta formalizazioa kontratatzailearen profileen argitaratzea.

Laugarrena.- Urte anitzeko gastua baimentzea, 109.976 eurokoa (BEZa barne), 59 hilabeteko eperako kontratua formalizatzen den egunetik kontatzen hasita.

Zenbateko hori urteka banatuko da jarraian esango den bezala, kontratua izenpetzen den benetako dataren arabera gerora doitzearen kalterik gabe:

EKITALDIA	AURREKONTU PARTIDAK	ZENBATEKOA (BEZa barne)
2024	1.0300.641.342.20.01	1.761,46
2025	1.0300.641.342.20.01	21.137,50

2026	1.0300.641.342.20.01	21.137,50
2027	1.0300.641.342.20.01	21.137,50
2028	1.0300.641.342.20.01	21.137,50
2029	1.0300.641.342.20.01	17.614,6 + 6.050= 23.664,6

BOSGARRENA.- ATHLON SINTAGMIA SL enpresa izendatzea kontratuaren arduradun, SPKLren 62. artikuluan deskribatutako baldintzetan. Enpresa horri dagokio kontratua nola gauzatzeko den gainbegiratzea eta hitzartutako hornidura behar bezala egiten dela ziurtatzeko beharrezko jarraibideak ematea.

13.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:20an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

I. ERANSKINA

ALDAKETA PROPOSAMENA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

- **Ondorengo karga-tasa % 2 igotzea:**

Hiri izaerakoa- GAINONTZEKO GUNEAK. % 0,24111tik % 0,24593ra

Gainerakoa ez, indarrean dagoen tasa Foru Aginduak baimendutako handiena delako.

- **Gaur egun ondorengo hobaria jasotzen da 3. artikuluko 7. idatz-zatian:**

7.- Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria ezarriko da energia berriztagarriaren sistemak jarri dituzten ondasun higiezinentzat, betiere energia berriztagarriaren sistemak jarritako partzelaren erabilera nagusia etxebizitzakoa bada edo lurzoru urbanizaezinezko etxebizitza-erakina (baserriak barne).

2024/10/24
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria

Zerga hobaria, guztira, ez da izango eskatzaile bakoitzaren inbertsioaren kostu osoaren % 50 baino gehiago, eta gehienez 1.000 eurokoa izango da, eta instalazioa egin dela ziurtatu ondorengo lehen 10 urteetan aplikatuko da.

Baldintzak:

1. Hobari edo beherapen hori izateko, energia berriztagarriaren instalazioek beroa sortzen badute, dituzten kolektoreek Administrazioaren homologazioa izan behar dute.
2. Energia berriztagarriaren sistemak instalatu ostean egin beharko da eskaera, eta Ingurumen arloak onespenez txostena eman beharko du instalatutako sistema hobariarekin bat datorrela onesteko.
3. Energia aprobetxatzeko sistema jarri den ondasunaren OHZn bakarrik aplikatuko da hobaria.
4. Hobaria 10 urtetan aplikatuko da, aurreko onespenez txostena eman eta hurrengo zergalditik aurrera. Aurreko ekitaldietako OHZ ordainagiriak ordainduta egon beharko dira.

Eskaerak instalazio obrak amaitu ostean aurkeztu beharko dira agiri hauekin:

- Eskatzailearen NANA.
- Obra amaierako likidazioa eta ziurtagiria.
- Eskatzaile bakoitzaren jabetzari dagokion inbertsioa.
- Instalatutako energia sistemaren homologazioa.

Salbuespenak:

1. Hobari honetatik salbuespen geratzen dira eraikuntza berriko higiezinak, indarrean dagoen Eraikuntzako Kode Teknikoak ezarritakoa betez, instalatuta daukatelako sistema hori.

Honako hau jasotzea proposatzen da:

7.- Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria ezarriko da energia berriztagarriaren sistemak jarri dituzten ondasun higiezinarentzat, betiere energia berriztagarriaren sistemak jarritako partzelaren erabilera nagusia etxebizitzakoa bada edo lurzoru urbanizaezinezko etxebizitza-erakina (baserriak barne). **Betiere sistema horiek jartzeko obrak borondatez egiten baldin badira, hau da, ez baditu ezartzen indarrean dagoen araudiak.**

Zerga hobaria, guztira, ez da izango eskatzaile bakoitzaren inbertsioaren kostu osoaren % 50 baino gehiago, eta gehienez 1.000 eurokoa izango da, eta instalazioa egin dela ziurtatu ondorengo **lehen 5 urteetan** aplikatuko da.

Baldintzak:

1. Energia berriztagarri sistema jarri duten ondasun higiezinak 2005. Urtea baino lehenagokoak izan beharko dute.
- 2.- Hobari edo beherapen hori izateko, energia berriztagarriaren instalazioek beroa sortzen badute, dituzten kolektoreek Administrazioaren homologazioa izan behar dute.
2. Energia berriztagarriaren sistemak instalatu ostean egin beharko da eskaera, eta Ingurumen arloak onespenez txostena eman beharko du instalatutako sistema hobariarekin bat datorrela onesteko.

3. Energia aprobetxatzeko sistema jarri den ondasunaren OHZn bakarrik aplikatuko da hobaria.
4. Hobaria 5 urtetan aplikatuko da, aurreko onespren txostena eman eta hurrengo zergalditik aurrera. Aurreko ekitaldietako OHZ ordainagiriak ordainduta egon beharko dira.

Eskaerak instalazio obrak amaitu ostean aurkeztu beharko dira agiri hauekin:

- Eskatzailearen NANA.
- Obra amaierako likidazioa eta ziurtagiria.
- Eskatzaile bakoitzaren jabetzari dagokion inbertsioa.
- Instalaturako energia sistemaren homologazioa.

Salbuespenak:

1. Hobari honetatik salbuetsita geratzen dira eraikuntza berriko higiezinak, indarrean dagoen Eraikuntzako Kode Teknikoak ezarritakoa betez, instalatuta daukatelako sistema hori.

UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ORDAINARAZTEKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

- Udal koefizientea: Gaur egungoari eutsi: 2,2

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK ZEHAZTEKO OINARRIZKO ELEMENTUEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

Gehieneko kuota ez duten kuotak % 2 igo.

HIRI-LURREN BALIO IGOERAREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

Indarrean dagoenarekin jarraitu.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

- **Tasa:** Indarrean dagoenarekin jarraitu.
- **5.3.3.8 idatz-zatian aurreikusitako hobaria honela aldatzea:**

Honako hau dioen lekuan:

5.3.3.8. Energia berriztagarrien aprobetxamendua daukaten eraikuntza eta instalazioek % 95eko hobaria izango dute.

- Hobaria emateko, energia berriztagarriak instalazioek beroa sortzen badute, dituzten kolektoreek Administrazioaren homologazioa izan behar dute.
- Ez da hobarik egingo Eraikuntzako Kode Teknikoak (EKT) berak behartuta jarri badu promotoreak instalazioa.
- Aipatutako energia sistemak jartzeko obrei dagozkion aurrekontuko zatiak bakarrik izango du hobaria, obraren gainontzeko zatiak ez baitu besterik gabe hobarik izango sistema horiek jarri direlako.

Honako hau esatea:

5.3.3.8. Energia berriztagarrien aprobetxamendua daukaten eraikuntza eta instalazioek % 95eko hobaria izango dute.

- Hobaria emateko, energia berriztagarriak instalazioek beroa sortzen badute, dituzten kolektoreek Administrazioaren homologazioa izan behar dute.
- Ez da hobarik egingo Eraikuntzako Kode Teknikoak (EKT) berak behartuta jarri badu promotoreak instalazioa.
- Aipatutako energia sistemak jartzeko obrei dagozkion aurrekontuko zatiak bakarrik izango du hobaria, obraren gainontzeko zatiak ez baitu besterik gabe hobarik izango sistema horiek jarri direlako.

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

Tasa guztiak % 2 igotzea, honako hauek izan ezik:

1.- Hirigintza lizentziak emateagatiko tasak:

Obra lizentzia emateagatiko tasa bere horretan uztea, eta, gainontzekoak, % 2 igotzea.

Lehenengoa.- Hirigintza lizentziak emateagatiko tasak, ondorengo hauek izatea:

Obra lizentzia:

1. Etxebizitzarako lizentziak: **Obra aurrekontuaren % 0,31**
2. Industria eta zerbitzutarako lizentziak: **Obra aurrekontuaren % 0,31**

Lizentzia luzatuz gero, eta eskaera egiten denean hasierako erabakian adierazitako epeak amaitu ez badira, ordaindu beharreko kuota hirigintzako lizentziagatiko tasaren % 50 izango da.

Etxebizitza lehenengoz erabili eta okupatzeko lizentzia:

	€
- Etxebizitza bakoitzeko.	
5 etxebizitza arte	54,85
6. etxebizitzatik aurrera	27,41
- Etxebizitza adosatu bakoitzeko	350,70

2024/10/24
Ohiko Osoko bilkura
Pleno Ordinaria

- Familia bakarreko etxebizitzak –nekazaritza ustiapenik gabeak–	403,35
- Bi familiako etxebizitzak –nekazaritza ustiapenik gabeak–	603,20
- Nekazaritza ustiapena duen eraikineko etxebizitza bakoitzeko	27,42

Partzelak banandu eta bateratzeko lizentzia:

- Hiri lurretan: 257 €
- Landa lurretan: 77 €

2.- Hiri hondakin solidoak jaso, garraiatu eta birrintzeagatiko mankomunitateko zerbitzuaren tasa. % 39 igotzea eta tasa hiru hilabetero kobratzea.

Horrela geldituko litzateke:

1. artikulua. Lege oinarria

Apirilaren 21eko Hondakinen 10/98 Legeak, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, eta aplikatu beharreko gainerako legeriak ezartzen duenaren arabera, herri erakundeen ardura da hiri hondakinak eta asimilagarriak jaso, garraiatu eta gestionatzea.

Zerbitzu hori Debagoieneko Mankomunitatearen bidez ematen du Udalak.

Gipuzkoako Foru Ogasunak Arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak bere 20 artikuluan ezarritakoaren arabera, Udal honek jarraitu egingo du zerbitzu horri dagokion tasa ordainarazten.

2. artikulua. Definizioak

a. Hiri Hondakinak eta asimilagarriak: apirilaren 21eko Hondakinei buruzko 10/98 Legean ezarritako definizioa.

b. Jasotzeko puntua: nahastutako hiri hondakinak (zaborra) jasotzeko ezarrita dagoen puntua, bai lurrekoa eta bai kontenedoreetakoa. Jasotze bereizita egiteko dauden puntuak ez dira hemen sartzen.

3. artikulua. Zerbitzuaren erabilera

Mankomunitateko Zerbitzua indarrean dauden lege, erregelamendu eta arauak errespetatuz erabiliko da.

4. artikulua. Zergagaia.

Hiri hondakinak jaso, garraiatu eta gestionatzeko zerbitzua da zerga honen gaia. Zergari dagokionez, jasotze bereizitak ez dira zergagai izango.

5. artikulua. Zerga-betebeharra

Zerga betebeharra derrigorrezko zerbitzu orokor honek eragiten du. Etxebizitza jabeak eta komertzio, industria eta zerbitzu jardueretako jabeak dira zerbitzu honen erabiltzaileak, eta beraz, pertsona fisiko nahiz juridiko orok ordaindu behar du zerbitzu hau.

6. artikulua. Subjektu pasiboak

Tasa hau pertsona fisiko edo juridikoek ordainduko dute, baldin eta komertzio, industria eta zerbitzu jardueretarako lokalen baten edo etxebizitza baten (bertan bizi ala ez) jabe badira, edo horietakoren bat okupatzen badute.

Ez dira subjektu pasibo izango:

- Ibilgailu garajeen titularrak, baldin eta garaje horietan diru irabazia sortzen duen jarduerarik gauzatzen ez bada.

- Etxebizitzarekin zerikusirik ez daukaten lokal eta etxabeen jabeak, baldin eta lokal horietan inolako jarduerarik gauzatzen ez bada.

- Aurri-egoeraren adierazpena duten eraikinen jabeak, eta adierazpen hori izan gabe ere, bizitzeko egokiak ez diren etxeen jabeak.

- "Udal benefizentzia erroldan" dauden zergadunak.

- Zaharren egoitzak eta antzerako zentroak, udal benefizentziak erabat mantentzen dituzenean, eta inolako dirulaguntzarik jasotzen ez dutenean.

Subjektu pasiboa hau izango da: zergaldiaren lehendabiziko egunean jabea edo jabeakidea dena. Maizterrak jabearen baimena behar du hiri hondakinen zerbitzuan zergadun izan nahi badu. Baimena eman zaiola frogatzeko, alokairu-kontratua aurkeztu behar du maizterrak, nagusiak sinatuta.

7. artikulua. Zergadunen sailkapena

Tasa hau aplikatzeko, zergadunak honako kategoria, talde eta azpitaldetan sailkatzen dira.

1. kategoria. Etxebizitza partikularra.	Azpitaldea
10. taldea. Etxebizitza partikularrak	
Etxebizitza partikularrak	101
2. kategoria. Biltegi eta komertzioak	
20. taldea. Biltegiak, oro har	
Biltegiak, oro har	200
Olio biltegiak	201
Edari biltegiak	202
Kolonialen biltegiak	203
Pentsu biltegiak	204
Paper eta pintura biltegiak	205
Produktu industrialen biltegiak	206
Egur biltegiak	207
Burdin biltegiak	208

21. taldea. Arropa dendak	
Boutique eta konfekzioa	210
Artile dendak	211
Kinkila dendak (mertzeria)	212
Moda dendak	213
Ehun dendak	214
Tindategiak eta garbitegiak	215
Zapata dendak	216
Aterki, goardasol eta kapela dendak	217
22/23. taldea. Luxuzko artikulua eta apaingarriak saltzeko dendak	
Arma dendak eta ehiza-arrantza artikulua	220
Kirol artikulua	221
Drogeriak	222
Bitxi dendak	223
Jostailu dendak	224
Liburu dendak	225
Ile-apaindegiak eta edertze aretoak	226
Lurrin dendak	227
Opari dendak	228
Erloju dendak	229
24. taldea. Etxea hornitzeko dendak	
Elektrizitate dendak	240

Elektratresna dendak	241
Burdindegia eta brikolaje dendak	242
Altzari dendak	243
Paper eta pintura dendak	244
Saneamendurako artikuluen dendak	245
25. taldea. Kontsumorako artikuluen dendak	
Ikaztegiak	250
Estankoak	251
Farmaziak	252
Okindegia	253
Egunkari eta aldizkarien salmenta	254
Kiniela salmenta	255
26/27. taldeak. Jarduera profesionaletarako lokalak	
Abokatuak	260
Arkitektoak eta ikerketa bulegoak	261
Dentistak	262
Farmaziak	263
Argazki dendak	264
Gestoria eta autoeskolak	265
Apaindegia	266
Inprimategia	267
Medikuak	268

Notariotzak	269
Bulegoak eta sindikatuak	270
28. taldea. Zerbitzuetarako lokalak	
Eskolak, ikastetxeak, ikastolak, haurtzaindegiak eta irakaskuntzarako beste lokal batzuk	280
Elizak, kaperak, gurtzarako lekuak, komentuak	281
Eraikin publikoak: Udalarenak, Mankomunitatekoak, probintziakoak, Eusko Jaurlearitzakoak, merkatuak, hiltegiak	282
Bibliotekak, kultur aretoak, erakusketa aretoak, kirol elkarteak	283
Kiroldegiak, igerilekuak, kirol zentroak, futbol zelaiak, zezen plazak	284
Jubilatuen elkarteak, zaharren egoitzak	285
3. kategoria. Ostalaritza, Elikagaiak eta Zerbitzuak	
30/31. taldeak. Elikagaiak	
Hegaztiak eta arrautzak	300
Karameluak	301
Harategiak	302
Kolonialak	303
Gozo dendak	304
Ekonomatoak	305
Fruta dendak	306
Gozotegiak	307
Arrandegiak	308
Supermerkatuak	309

Janari-dendak, ultramarinoak	310
Esnea saltzeko dendak	311
32. taldea. Ostatu-ematea	
Ostatuak	320
Fondak	321
Hostalak	322
Hotelak	323
Pentsioak	324
Erresidentziak	325
33. taldea. Edaritegiak	
Bar-ak	330
Upategiak	331
Kafetegiak	332
Klubak.	333
Pubak	334
Snack-Bar	335
Tabernak	336
Ardandegiak	337
34 taldea. Jateko lekuak	
Merenderoak	340
Jatetxeak, Self-service	341
Elkarte gastronomikoak	342

35. taldea. Zerbitzuak	
Bidaia agentziak	350
Bankuak	351
Aurrezki kutxak	352
Aseguru etxeak	353
Posta bulegoak, telefonoak, epaitegia, polizia, Ertzantza	354
4. kategoria. Industria jarduerak eta zerbitzuak	
40. taldea. Industria produktiboak	
Aroztegiak, zerrategiak, altzari-lantegiak	400
Errementeriak, fundizioak	401
Soldadura	402
Sopletistak	403
Fabrika eta industriak, oro har	404
Trokeleriak, moldeak eta matrizeak	405
Auto konponketa	406
Iturginak	407
41. taldea. Aisialdiko industria	
Zine aretoak	410
Dantzalekuak	411
Joko aretoak	412
Antzokiak	413
42. taldea. Zerbitzuak	

Garajeak -negozioa-	420
Ibilgailuen konponketa	421
Hornikuntza industrialak	422
Garraio agentziak	423
Garbiketa enpresak	424
5. kategoria. Aurrez hitzarturiko zerbitzuak	
50. taldea. Aurrez hitzarturiko zerbitzuak	
Aurrez hitzartutako zerbitzuak	500
Klinikak	501
Ospitaleak	502
Anbulatorioak	503

8. artikulua. Tarifak, baliokidetasunak eta irizpideak

Zergadun bakoitzak bere kategoriarri dagokion tarifaren tasa ordaindu behar du. Tarifa bakoitzaren tasak ondoren adierazten den baliokidetasuna dauka 1.1 tarifarekiko.

Kategoria	Tarifa	Lan gile kop urua	Baliokidetas una	Seihil eko tasa €	Hiruhilebe teko tasa €
1. Etxebizitzak	1.1. Arrunta.	-	1,00	60,46	80,04/2= 42,02
	1.2. 1.2 Organikoa kudeatzen duten guneak	-	0,4	24,18	16,80
	1.3. Ekarpen gune erabiltzailea.	-	0,75	45,34	31,51
	1.4. Ekarpen gune erabiltzaile konpostatzailea.	-	0,50	30,23	21,01

2. Biltegi eta komertzioak	2.1	≤2	3,18	192,26	133,62
	2.2	≤5	5,30	320,43	222,70
	2.3	≤15	10,60	640,87	445,41
	2.4	>15	15,90	961,34	668,11
3. Ostalaritza, elikagaiak eta zerbitzuak	3.1	≤2	4,24	256,35	178,16
	3.2	≤5	7,95	480,65	334,05
